

Euskadiko AEko heriotzek % 0,9 egin zuten behera 2019an

Hildako pertsonen batez besteko adina 80,8 urte izan ziren, hamar urte lehenago baino hiru urte gehiagokoa


Euskal AEn, 2019an, 21.560 heriotza izan ziren; alegia, % 0,9ko beherakada egon zen, 2018aren aldean, Eustaten datuen arabera. 10.756 gizon eta 10.804 emakume hil ziren. Hilabeteen arabera, urtarrilean izan ziren heriotza gehien (2.372) eta ekainean eta irailean gutxien (1.578).

2019an hildako pertsonen batez besteko adina 80,8 urte izan zen, eta, hamar urte lehenago, 2009an, 77,7; alegia, azken hamarkadan 3,1 urteko gorakada egon da.

Gizonak batez beste 77,4 urterekin hil ziren eta emakumeak, 84,2 urterekin, 2019an; 2009an, 74,2 urterekin eta 81,5 urterekin, hurrenez hurren. Ondorioz, azken 10 urte hauetan, gizonen heriotzaren batez besteko adinak 3,2 urte egin du gora eta emakumeenak, 2,7 urte.

Haurren heriotza-tasa dela eta, urtebete baino gutxiagoko 43 adingabe hil ziren Euskal AEn. Jaioberrien heriotza-tasa dela eta, lehen 28 bizi-egunetakoa, 32 heriotza egon ziren; horietatik, 10 lehen 24 orduetan eta beste 9, lehen astean zehar. Urtebetetik beherakoen artean, mutikoen heriotzak guztizkoaren % 55,8 izan ziren.

Urtebetetik beherakoen heriotzak Euskal AEn, sexuaren arabera



Iturria: Eustat. Heriotzen estatistika

2019an, 100 urteko edo gehiagoko 378 pertsona hil ziren; haien artean, % 81,2 emakumeak ziren. Ehun urteko pertsonen heriotza-kopurua igotzen joan da azken urteotan, eta 2019an gehieneko kopurua hil zen (378 pertsona); horrela, 2018an baino hamasei gehiago izan ziren.


Hazkuntza begetatiboa negatiboa izan zen hiru lurraldeetan

Hazkuntza begetatiboa negatiboa izan zen; izan ere, jaiotzak baino 6.142 heriotza gehiago egon ziren. Lurraldeen arabera, saldo negatiboak izan ziren hiru lurraldeetan: Bizkaian, 4.241 pertsona; Gipuzkoan, 1.729, eta, Araban, 172.

Heriotzen ia herena tumoreen ondorio izan zen

2019an izandako heriotzen % 29,3, alegia 6.309 heriotza, tumoreen ondoriozkoa izan zen; ondoren, zirkulazio-aparatuko gaixotasunen ondorioz (% 26,1, alegia 5.620 heriotza); hirugarrenik, arnas gaixotasunen ondorioz (% 10, alegia 2.158), eta, azkenik, buruko eta portaeraren nahasmenduen ondorioz (% 7,8, alegia 1.676).

Heriotzen motiboak desberdina izaten jarraitzen du, sexuaren arabera; izan ere, gizonen artean, tumoreek gaintitu egin zituzten zirkulazio-aparatuko gaixotasunak, eta, emakumeen artean, kausa nagusia gaixotasun kardiobaskularrak izan ziren eta, ondoren, tumoreak. Gainera, nabarmendu behar da buruko eta portaeraren nahasmenduen ondoriozko heriotzen artean emakumeen ehunekoa handiagoa dela, eta kontrakoa gertatzen dela kanpo-kausak eragindakoetan, non gizonen ehunekoa handiagoa baita.

Euskal AEko heriotza-kausak, sexuaren arabera. 2019


Era berean, heriotza-kausa aldatu egiten da adinarekin. Urtebetetik beherakoetan, heriotza ohikoenak jaiotza inguruko denboraldian sortutako gaixotasunen eta sortzetiko malformazioen ondoriozkoak izan ziren; urtebetetik 39 urtera bitartean, heriotza-kausa nagusiak kanpo-kausak izan ziren, besteak beste istripuak eta suizidioak; 40 urtetik 89 urtera bitartean tumoreak izan ziren lehen heriotza-kausa eta, 90etik aurrera, zirkulazio-sistemako gaixotasunak.

Heriotzak, arrazoiaren eta adinaren arabera. 2019

	Guztira		1 urtetik		1-19 urte		20-39 urte		40-69 urte		70-89 urte		90 urte edo	
	Z	%	Z	%	Z	%	Z	%	Z	%	Z	%	Z	%
Guztira	21.560	100,0	43	100,0	39	100,0	160	100,0	3.652	100,0	11.635	100,0	6.031	100,0
Tumoreak	6.309	29,3	0	0,0	6	15,4	41	25,6	2.021	55,3	3.574	30,7	667	11,1
Nahasmendu mentalak eta portaerarenak	1.676	7,8	0	0,0	0	0,0	0	0,0	38	1,0	804	6,9	834	13,8
Zirkulazio-sistemako gaixotasunak	5.620	26,1	2	4,7	3	7,7	22	13,8	659	18,0	3.014	25,9	1.920	31,8
Arnas-sistemako gaixotasunak	2.158	10,0	0	0,0	1	2,6	3	1,9	179	4,9	1.207	10,4	768	12,7
Txegoste-sistemako gaixotasunak	956	4,4	0	0,0	2	5,1	5	3,1	158	4,3	549	4,7	242	4,0
Hilkortasunaren kanpo-kausak	756	3,5	2	4,7	12	30,8	73	45,6	214	5,9	318	2,7	137	2,3
Bestelakoak	4.085	18,9	39	90,7	15	38,5	16	10,0	383	10,5	2.169	18,6	1.463	24,3

Iturria: Eustat. Heriotzen estatistika

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

 Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62